

RAMON MUJICA (G.B.)

Xabier Olaskoaga

SANTA MARIA KALEKO KALETAR ETA ADISKIDE ONARI



Berri txarra, naiz eta itxaron izana, Iraillaren 1ean gureganatu zan. Donostian bere bizitzaren azken urteak igaro ondoren, Ramon Mujika kaletar eta adiskide onak betirako utzi ginduen gaixoaldi luze bat igaro ondoren eta bere eriotzak sortu zidan naigabea jasan bear izan nuben.

Gaur, ain maite eta ainbat urtetan bere kolaborazioa izanduzan "OARSO" aldizkari onetan, berari goratzarrea eskeiñi nai diot, bere bizitzan erreteriar eta kaletar bezala elkarrekin igaro genituan ekintza batzuek azalduaz; jakiñik, ni baiño obeak diren idazleak, bere bizitzan beste alor batzuetan azaldutako nortasuna bear den lekuan ipiñiko dutela.

Bere jaiotza eguna 1.917ko Urrillaren 28a izandu zan, Santa Maria kaleko 11garren zenbakian, irugarren bizitzan bere bizilekua izanik. Benito eta Maria aita-amak izandu zituan, ama gabe oraindik umetxo zelarik gelditu zela, orduko gaitz izurriketa baten ondoren. Aitak janari saltegi

bat zeukan eta egoera ekonomiko ona zeukan familia bateko umea izandu zan.

Umetako kontuak berdintsuak direnez kale guztietan, pasa ditzagun guda arteko urteak eta jarrai dezagun ondorengoein, urte auetan izan bai genduen artu eman aundiena. 1.936ko guda zitalak denak sakabanatu ginduzen, batzuk alderdi batean eta besteak bestean, eta elkarren berri jakin gabe igaro genituan urte aiek. Argaitik guda ondorengogure artu emanen berri emango dizuet.

1.941eko Azaroaren 11tik 1.943ko Apirillaren 14ra errikoudal ziñegotzi izandu zan. Ordutik aurrera elkarrekin izaten giñan, bai musika eta bai kultura mailako ekintza askotan, eleiz koruko partaide ere izanik. Ramon bakarlari oso ona izandu zan, abespeiti (baritono) abots leguna eta entzungarria edukirik.

Eleiz koruko abeslarien artetik sortu zen "Oarso" zortzikotea, bera sortzalletako bat izanik: Fermin Altxu, Ignacio Mujika, Boni Olaizola, Andoni Idiazabal, Ramon Mujika, Juan Polo, Luis Arozena eta ni tartean egonik. Bi aldaketa izan zituan talde onek, Fermin et Ignacioren truke Antontxu Sainz eta Ramon Linazasoro, eta azkenik J.Poloren ordezt Joxemari Mendizabal sartu zirelarik. Tamalez, amaika lagun auetatik bi gelditzen gerade mundu onetan: Fermin Altxu eta zuekin dagoen au; ziur nago zero zabalean "Oarso" taldeko kideak berriro ere kantuan ariko direla emen bezala, on Juan Bautista Olaizola, orduan bezala, zuzendari dutelarik.

Zortzikote onen berri ugari azaltzen dira Erretereria Musikaleko liburuan, Antontxu Sainz bertako partaide eta idazle lagun maitagarriak urrango belaunaldikoek jakin dezaten beraren berri, eta argaitik ni ez noa gai orreri jarraitzera.

1.948garren urtean, guda ondorenean, Udal Banda desagertua izanik (naiz eta Falangeko banda izan) berriro ere lengo zuzendariarekin eta etxeratu ziren musikoekin Banda osatzeko batzorde bat eratu zen eta bertako lendarikari Ramon izanik. Orain ain goratua eta ainbat sariketan

saritua izan dan Erretereriako Musika Kultura Elkartearen ta bere alde zenbat lan egiña izandu zan bertako lendakari izandu zan denboran.

1.953-1.961 tartean "Orfeón Renteriano" berriro berpiztu zan on Jesús Querejeta zuzendaria izanik eta bertan ere partaide izan giñan. Donostiako Santa Ceciliakin eta, laguntzalle bezala, beste erreteriar batzuekin Erroma eta Milanen gure abotsak entzun arazi genituen. Auek 1.956 eta 1.957 urteetan izandu ziran. Ikusten duzutenez, kantu lanean makiñatxo bat aldiz elkartu izandu giñan.

1.972ko Martxoaren 6tik 1.976ko Urtarrillarte erriko alkate izendatua izandu zan ta bere aginpe barruan, erriaren alde lan ugari egin zituan kultura ta musika maillan; bereziki "Musikasteri" eskeiñitako laguntzarekin eta, zer esanik ez, "Oarso" aldizkariari irtetzen ez zala egonik, berriro argitaratzea lortu al izandu zuelako..

Bai eta bere agindupean berreskuratu zan 1.974garren urtean, galduta zegoen zugaitz eguna, eta neronek ere ume nintzala ezagutu nuena,"Himno al Arbol" izeneko abestia-rekin abestu al izanik. Abesti ura lagun talde batek berriro osatzea lortu genduen eta, berak zuen erdal itzak euskera-tzeko, esan zidan Ramonek. Poz aundiz eta oso gustora bete nuben bere agindua. Era onetan, Musika Banda eta Pio Baroja eskola umeekin grabaketa bat egin zan, Udalak aginduta. Bañan, tamalez, ez dakit grabaketa ura non izan-go dan, berriro ez bai ditut entzun eresi arren oiartzunik.

Bere agintearen garaian Vatikanoko II. Kontzilioa mundu-ratu zan eta, ura zala ta, eliz ekintzetan aldaketa asko izan-du ziran eta auetako bat, mezak erri bakoitzak bere izkuntzan egitea izandu zan. Ala izanik, Ramon lagun nuela, goizeko zortzietako mezetan berak irakurle egiñaz, nik kantuen zuzendaritza egiten nuelarik, urte batzue-tako bikotea osatu genuen. Naiz berak urte batzuek igaro izan lan arretan, bere eginbearrak utzi arazi izan zuan. Urte aiek oraindik Frankoren denborak ziran eta ekintza ura euskaraz zalarik, alkate batentzako ainbat arriskatzea zala iruditzen zitzaidan.

Ramon mendizale purrukatua zan, izadiaren maitale, bere bizitzan mendi gallur askotan jarri ziran bere oñak, ainbat gertakizun izanik bere mendigoizale bizitzan; bañan nik berarekin izandako gertaera azalduko dizuet zergatik, naiz neri mendia oso atsegin izan, ez naiz oso mendigoizalea izan.

Meza ondorenean, ni ere batzuetan, gertuko mendietara bira egiten zuan geienetan eta aietako batean joateko deia egin zidan. Perratxiko denbora zan eta bera aditua izanik , nik ere bilketa on bat egingo nuelakoan baiezkua esan nion.

Bat batean prestatua abiatu giñan, berak zeukan "Vespa" motarrean Arlepo aldera. Irailleko lenengo igandea zan eta Donostiako urteroko estropada eguna. Eguraldia benetan txarra, goian bean atertu gabe, eudia egun osoan egiten duen oietakoa izanik iritxi giñan eta Oialeku etxola batean babestu giñan. Ni perratxiko zale bai, bañan beñere ez nintzan ibilli izan bilketa lanean eta adituen ondoan zer-bait egingo nuelakoan ekin nion lanari.

An eta emen ikusten nituan perretxikoak eta iruditzen zitzaidan egiten zuan eudiarekin une batetik bestera nun nai irtetzen ziradela,era orretan bilketa oso erreza iza-

nik.Denbora gutxian eraman nituan poltsa pareta goraño bete nituan, nere bilketa onurakorra izandu zala uste osoan eta perretxiko zale orren zalla ez izanik, adituen ondoan ni ere tartean sartuko nintzala. Bañan, ondorenean izandu zan nere atsekabea, Ramon beraiek bereizten asi zenean, onak alde batera utziaz, era artan bi edo bakarrik onen artean geldituz.

Ura izandu da egin dudan lenengo eta azkeneko perretxiko bilketa, ezaguturik ez dala orren errexa adituen ondoan egotea gai orretan,berak gai orretako doai bat izanik. Auxe izandu zan nere adiskidearen bizitzako pasadizo bat eta egun artan gertatua, beñere aztuko ez detana, ez eta ere egun artan jaso genduen busti aldia.

Bere asmo berezi bat Santa Maria kalean jaio giñadenen anai arteko egunaren antolaketa izandu zan, eta 1.984garren urtean Boni Otegiarekin batean sortzaille izandu zan. Pazko zazpi urrenean bazkari baten ondoan elkartzeko erabakia artu zuten; aurtengo urtean ere oraindik gelditzen geranak elkartu izanik, bai goiz mezetan eta bai bazkarian. Beren utsegiña gogoan eduki eta ziur nago egun orretan urtero bezela, zeru goitik Boni, Pedrotxo, Los Santos anaiak, Periko Landatxe eta falta diradenak bat egiñik bere kaletarra Ramonekin batera beren laguntza bidaliko diotela.

Bere azken urteak Donostian igaro zituan eta bertan ere azaldu zuan bere nortasuna Amarako Errosario eleizan, bere laguntza berezia eskeiniatz; bañan an egon arren, beti bere Erretereria gogo maitekor batean edukirik, eriotza urbildu zitzaion bitartean.

Bere illeta egunean, eleiza betea izanik, azken agurra egin genion bai abeslariak bai erriak eta,nola ez, bera sortzalle-tako bat izanik Erretereriako Musika Elkartek bere agur berezia eta unkigarria egiñik.



AGUR RAMON. EGUN AUNDIRARTE.

Maite zenuen erria eta maite zenuen kalia.

Bai eta ere maite musika, izanik abeslaria.

Zure goiburu izan zenduen ain ederra dan natura.

Lagun urkoai eskeiñirikan egizko anaitasuna.

Orain daukazu zeru ederrean pakea ta atsedena.